



Alemanen ezkontzaia



Etzan zarata eta esamesa gutxi ibilli Oñatin orain dela berrogeita hamalau urte **Pedro Gundel** alemanaren alabia ezkondu zanian. Hori 1953ko urriaren 26ean izan zan, baiña boda haren historiaria atzeragotik etorren. Gundel jauna 1917 inguruan ailegau zan Oñatira eta begira zergatik: I. mundu-gerrako urtiak ziran eta, bera solidadu alemana izanik, frantsesen preso eguen Bordelen; handik Donostiarra iges egittia lortu eben, eta Alemaniako kontsulak Oñatira etorteko esan otsan, txantxuarrrok germanofilo samarrak ginala-eta. Kontua da Etxaluze plazatxoko Renomdarren etxian bizi izan zala eta han ifiñi ebela hazurra eta marfilla lantzeekoa taillerra. Lehenengo mundu-gerria amaittu eta Alemaniako jaioxeterrira bueltau zan, Nurenbergera, baiña ez luzarorako. Han ezkondu eta barriro etorri xakun Oñatira, baiña orianguan **Pablo Kernstock**, bere lehengusua txikiñia, lagun ebela. Kale Barritik San Juan kalera aldatu euen negozia eta han jaixo ziran Pedroren bost seme-alabak: lau neskatilla eta mutikuo bat: **Ingeborg** (Ines), **Gerlinde**, **Rottstraut** (Karmen), **Dietrich** (Juan) eta **Marta**. Gurasuak protestante luterotarrak izan arren, eskolara fan ahal izateko-eta, errito katolikuan bautizau zittuain umiak.

Espainiako gerra zibilla hasi eta laister, 1936ko abuztuan, Alemaniara fan bihar izan euen Gundeltarrak nahiz Kernstock-arrak. Honeik Nurenbergen geratu ziran, senidien artian urte pare batian. Gundelek, ostera, Hamburgon barkua hartu eta Argentinara jo eben familia osuarekin, han be bere ofizian jarduteko. II. mundu-gerria akaboa eta haínbat urtetara bueltau zan lehenengo aldz Europara, eta 1953ko biabat Karmen (Rottstraut) alabiak lagundu otsan Alemaniara. Han ezagutu eben Carmen Gundelek **Adam Amend**, bere gizona izango zana, eta ezkonketa Oñatira etorri ziran. Dana dala, etzan gauza samurra izan: Karmen katolikoa eta senargeixa protestantia zalako, makiña bat tramite egin bihar izan zittuian ezkondu aurreikako parrokixako abadiekin. Sei bat hilabete pasau ondoren, elizaz ezkondu ziran, baiña ez elizan, Santa Anako Ursularen etxian baino. Ordurako hain boda berezika zalako-edo, zeresan eta komenatariora ugari entzun zan oñatiarren artian. Ezkonbarriox Argentinara fan ziran gero. Adam hil zan, baiña Karmen bizi da oraindikio.

Argazkixa Santa Anako zelaixan atarata dago zeremoniareni ostian. Umetan auzuan eta kolejixuan Karmenen izandako lagun batzuk agiri dira, bestiak beste; baita Gundeltarren umiak hazitako iñude eta neskame batzuk be. Ezkerretik eskumara eta goitik behera honeik dira ezagutu ditugunak:

Goiko illaran: **Juli Urtaza**, **Kirriñena**; **Marielen Arregi**, **Arrillagena**; **Rosario Letamendi**, Plazako dendakua; eta Santa Ana-ko hiru neska: **Tere Madinabeitia**, **Karmen Iñarra** eta **Rosario Madinabeitia** (auzoko edo eskolako lagunak seirok). **Erdiko illaran:** **Felix Anduaga**, **Xilberiona**; **Pablo Kernstock**, San Juan kaleko alemana; **Isabel Leturia**, Gundeltarren ihodia izandakua, Zubillaga Azpikua; **Felisa Enparantza**; **Kale Zaharreku**, laguna; **Ximona Markuleta**, **Poparretxenekua**; **Ugaztegiko Juana**; X. X. (azkenengo hirurak be iñudiak edo neskamiak); eta **Leandro Elortza**, **Tximpantanekua** (?), sankristaua. **Beheko illaran:** **Leonardo Zabaleta**, parrokixako abadia; **Pedro Gundel**, nobixiaren aitza; **Karmen** (Rottstraut) **Gundel** eta **Adam Amend**, ezkonbarrioxak; eta **Jose Luis Arrazola**, parrokixako abadia.

J. E:

Argazkixa Alberto Altunak itzi dosku. Argibidiak, berriz, Rafael Kernstock, Axun Dorronsoro, Pilar Barrena, Dolores Egaña eta Petri Ugarteri zor dostegu. Milla esker danoirir!

Oharra: Fan und hilleko fotografien ezezaguntzat joten geben bat identifikau dogu Petri Ugarteri eskerrak. Bigarren illaran eskumatik hirugarrena Justo Lizarralde da, Kale Zaharreko *Uztargiñenekua*.